

PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ANTZUOLAKO 1. POLIGONOKO 202, 203, 232, 233, 236 ETA 237 PARTZELAK ERRENTAN EMATEKO LIZITAZIOA ARAUTZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIAK

1.- XEDEA

Kontratuaren xedea da udal honen jabetzako landa-finka batzuk, Antzuolako 1. poligonoan kokatutakoak eta ondare-ondasuntzat jotakoak, errentan ematea.

POLIGONO A	PARTZELA	AZALERA, M²-TAN
1	202	3.717 m ²
1	203	4.802 m ²
1	232	8.371 m ²
1	233	7.784 m ²
1	236	6.941 m ²
1	237	5.848 m ²

Lizitazioak bi lote ditu:

- 1. lotea: Katastroko 1. poligonoaren 202, 203, 232 eta 233 partzelen errentamendua.
- 2. lotea: Katastroko 1. poligonoaren 236 eta 237 partzelen errentamendua.

Lizitatzailerak eskaintzak lote bakarrerako edo bietarako aurkeztu ahalko dituzte.

2.- HAUTAKETARAKO ETA ADJUDIKAZIORAKO PROZEDURA

Errentamendu-kontratua lehiaketa publiko baten bidez adjudikatuko da, eta eskaintza interesdun orok egin ahalko du, 33/2003 Legearen, azaroaren 3koaren, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoaren, 107.1. artikuluari jarraituz.

Eskaintzak baloratzeko eta onena zein den ebazteko, hainbat adjudikazio-irizpide aplikatu beharko dira.

3.- PROZEDURAREN PUBLIZITATEA

Gardentasuna eta kontratu-jardunari buruzko informaziorako sarbide publikoa bermatze aldera, eta bestelako publizitate-bitartekoak erabiltzea hargatik eragotzi gabe, Antzuolako Udalak interesdunei lizitazio honi buruzko dokumentazioa <http://www.antzuola.eus/> webguneko kontratatzailearen profilean jarriko die eskuragarri.

Lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.- ERRENTAMENDUAREN BALDINTZA EKONOMIKOAK

Kontratazio honetako Klausula Administratibo Partikularren Agirian zehaztutakoari jarraituz, errentamendurako ez da inolako kanonik ordaindu beharko, baina memoria bat aurkeztu beharko dute errentatzaileek, eta, han, partzelak larretzeko plan estrategiko bat.

5.- ERRENTAMENDU-ALDIA

Errentamenduak 10 urtez iraungo du, kontratua sinatzen denetik hasita (eta beste bost urtez luzatu ahalko da).

6.- GAITASUNA

Eskaintzak pertsona natural zein juridikoek aurkeztu ahalko dituzte, Espainiakoek zein atzerrikoek, beren kabuz edo ordezkarien bidez, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, administrazio publikoekin kontratatzeko debekurik ez badute, zerga-arloko zein Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak beteta badituzte, eta, Nekazaritzako edo Abeltzaintzako Ustiatzearen Erregistroan inskribatuta egoteaz gain, Antzuolan badihardute.

7.- KONTRATAZIO-ORGANOA

9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzkoaren, 2. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, lizitazioaren zenbatekoa dela eta, kontratazio hau egiteko organo eskuduna alkatetza da, adjudikaziodunek ez baitute errentarik ordaindu beharko.

8.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Eskaintzak 15 eguneko epean aurkeztu ahalko dira, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaintzak telematikoki zein aurrez aurre aurkeztu ahalko dira. Udal-bulegoen arreta-ordutegia 08:00etatik 14:00etarakoa da, astelehenetik ostiralera. Eskaintzak postaz ere aurkeztu ahalko dira, baita 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 16.4. artikuluan ezarritako lekuetako edozeinetan ere.

Eskaintzak postaz bidaliz gero, Correosen bulegoan eskaintza noiz aurkeztu zen justifikatu beharko zaio kontratazio-organismoari, eta, horretarako, aurkeztu izanaren agiria udala@antzuola.eus helbide elektronikora bidali beharko da.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ostean, kontratazio-organoak ez du onartuko Correosen aurkeztu izanaren justifikazioa jaso arren 10 egun naturaleko epean udal-bulegoetara iritsi ez den dokumentaziorik.

Lizitatzailerak bakoitzak lote bakoitzerako eskaintza bakarra aurkeztu behar du.

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, eta horietan lizitatzailerak nor den idatziko da, eta, bestetik honako hau: «1. poligonoko 202, 203, 232 eta 233 partzelen errentamenduan parte hartzeko eskaintza - 1. lotea» edo «1. poligonoko 236 eta 237 partzelen errentamenduan parte hartzeko eskaintza - 2. lotea», zein lotetarako aurkezten diren.

- **«A» gutun-azala: agiri administratiboak.**
- **«B» gutun-azala: eskaintzak adjudikazio-irizpideen arabera baloratzeko agiriak.**

Gutun-azalen edukia:

- **A GUTUN-AZALA, AGIRI ADMINISTRATIBOAK:** gutun-azal honetan lizitatzailerak adierazpen bat bakarrik egongo da, jarraian ageri den ereduaren arabera.

... jaunak/andreak (NAN zk.: ...), bizitokia ... helbidean duenak, jarduteko gaitasun osoa duenak, bere izenean edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritzako edo Abeltzaintzako Erregistroan inskribatuta dagoen- (r)en (bizitokia: ..., NAN zk.: ..., eta telefonoa: ...) ordezkari modura,

ADIERAZTEN DU

Sinatzailerak (eta haren ordezkariak, hala badagokio) ez duela 9/2017 Legearen 71. artikuluan aipatutako debekurik.

Egunean dituela indarrean dauden xedapenek zergen eta Gizarte Segurantzaren alorretan ezartzen dituzten betebeharrak guztiak, eta ez duela Antzuolako Udalarekin ordainarazte-fasean den zerga-arloko zorrik.

- **B GUTUN-AZALA, ESKAINTZAK ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN ARABERA BALORATZEKO AGIRIAK.**

1) Balio-judizioen bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa.

Lizitatzailerak honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Memoria teknikoa.

- Lizitatzailleak dituen bitarteko materialen eta giza bitartekoen deskribapena, baita aurreikusitako azpikontratazioak ere.
- Partzelak larretzeko eta gero ustiatzeko plan estrategikoa.

2) Formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa

Lizitatzailleek Antzuolako errolda-agiria aurkeztu beharko dute.

9.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Honako hauek izango dira adjudikazio-irizpideak eta bakoitzari dagokion haztapena:

1. Balio-judizioen bidez kuantifikatu beharreko irizpideak: 80 puntu, gehienez ere.

1. gutun-azalean jasotako dokumentazio osoa baloratuko da, karatula honen
11. puntuan aurreikusitakoaren arabera, xehakapen honen arabera:

Memoria teknikoa: 80 puntu, gehienez.

Lizitatzailleak dituen bitarteko materialen eta giza bitartekoen deskribapena baloratuko da, baita aurreikusitako azpikontratazioak ere. 40 puntu.

Partzelak larretzeko eta gero ustiatzeko prozesua egiteko lizitatzaille bakoitzaren plan estrategikoa baloratuko da.

2. Formulen bidez ebaluatu beharreko irizpideak: 20 puntu, gehienez ere.

- Antzuolako errolda-ziurtagiria: 20 puntu.

10.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Maria Pilar Garmendia Miguel (idazkari kontu-hartzailea)

Mahaikideak:

Iker Perez (udal arkitekto teknikoa)

Mahaiko idazkaria: Diana Pineda (Ingurumeneko teknikaria)

Gainera, haiez gain, mahaia bertaratzeko eskatutako teknikari oro bertaratu ahalko da, aholkularitza-lanak egiteko.

11.- ESKAINTZAK ZABALTZEA

Kontratazio-mahaia eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo 10 egun balioduneko epean osatuko da. A gutun-azalak zabalduko dira, eta haietako agiriak kalifikatuko dira.

Beharrezkoa bada, mahaia 24 orduko epea emango du lizitatzailleak aurkeztutako agirietan ikusi diren akats eta omisio zuzengarriak zuzendu ditzan.

B gutun-azalak irekiko dira, memoria teknikoak daramatzatenak; A gutun-azalak zabaldu ondoren, ahal dela; eta, betiere, haiek ireki eta 4 egun balioduneko epean.

12. AGIRI-ERREKERIMENDUAK

Bederatzigarren klausulan ezarritako irizpideen arabera egindako eskaintzen balorazioak ikusitakoan, kontratazio-mahaia kontratazio-organoari adjudikazio-proposamena helaraziko dio, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaillearen alde, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasi eta 10 egun balioduneko epean honako justifikazio-agiri hauek aurkez ditzan:

- Aldundiaren Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistroaren inskripzio-agiria.
- Zergen arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

13.- FIDANTZA

Ez da fidantzarik eskatuko.

14.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Errekerimenduan eskatutako dokumentazioan jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua agiriak jaso eta hurrengo 5 egunean adjudikatu beharko du.

Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, lizitatzaille guztiei jakinaraziko zaie eta GAO-n eta Antzuolako Udaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

15.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunaren eskubideak eta betebeharrak agiri honetatik, preskripzio teknikoen agiritik eta kontratutik sortutakoak dira, baita legedi aplikagarriak dakartzanak ere.

Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu indarrean dagoen lan-arloko legediak jasotako betebeharrak, eta Antzuolako Udala salbuetsita geldituko da errentamenduaren xede den landa-finka ustiatzen parte hartzen dutenen laneko segurtasunaren eta higienearen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloetako ez-betetzeek ekarritako erantzukizunetik.

Halaber, adjudikaziodunak nahitaez eman beharko ditu kontratutik edo indarreko legeditik eratorritako betebeharrak ez bete izanagatik errentamendua egikaritzean sortutako kalte-galera guztien ordainak.

9/2017 Legearen 211. artikuluan jasotako suntsiarazpen-kausak gorabehera, adjudikaziodunak kontratuaren xedea betetzean egindako arau-hausteak eta baimendutako ustiapenari lotu gabeko gertakarietatik sortutakoak indarreko legedian ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

16.- KONTRATUAK FORMALIZATZEA

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, eta, han, alderdi bakoitzarentzat agiri honetan zerrendatu diren eskubideak eta betebeharrak jasoko dira. Errentamenduak Jabetzaren Erregistroan inskriba badaitezke, eskritura publiko batean formalizatu beharko dira, inskribatu ahal izateko. Horrek sortutako gastuak normalizatzea eskatu duen alderdiak ordaindu beharko ditu, 33/2003 Legearen, azaroaren 3koaren, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoaren; Kode Zibilaren 1280.2. artikulua; eta 1946ko otsailaren 8ko Dekretuko Hipoteka Legearen Testu Bateginaren 2.5. artikulua arabera.

17.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau pribatua da, 9/2017 Legearen 9. artikuluari jarraituz, eta, beraz, 12. artikulua arabera, lege horren aplikaziotik kanpo dago.

Kontratuaren prestaketari eta adjudikaziodunari dagokionez, agiri honetan ezarritakoari jarraituko zaio, eta eta hartan jaso gabekoari dagokionez, aldiz, 33/2003 Legeari, azaroaren 3koari, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoari; Tokiko Erakundearen Ondasunen Erregelamenduari, hau da, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, onetsitakoari; eta 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan, jasotako legeditik erauzitako printzipioei; gainera, horren osagarri, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, bestela, zuzenbide pribatukoak.



Kontratuaren ondoreei eta iraungitzeari dagokienez, tokiko erakundeen ondareen arloko araudiari jarraituko zaio, aplikagarria denean, eta zuzenbide pribatuko arauei ere bai.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du kontratuaren prestaketari eta adjudikazioari lotutako auziak ebazteko eskumena.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du, aldiz, alderdien artean kontratuaren ondoreei, hura betetzeari eta kontratua iraungitzeari lotuta sortutako desadostasunak ebazteko eskumena.

Antzuolan, 2026ko ekainaren 17an.

ALKATEA.

Izptua.: Olatz Lezeta Urzelai



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	BALDINTZA ADMINISTRATIBO PLEGUAK.pdf
CSV/EKS:	SINA3788d1aa-95ab-4c96-be27-97f82ab08239